

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Loidi, Aresti, Aita Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Arruza ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da, eta baita bere geigarria be.

Anai Berriotxoak ezin etorria adierazo dau. Bide batez batzarrera agertu gura dituen gauza batzuk irakurten dira:

1) Justo Garate jaunaren lan bat bialtzen dau, "Juicios y Glorasio vasco-latino de Buenaventura Vulcanius" erretratu ta guzti, eta diño Euskaltzaindiko urgazle izen-tau dalako bialtzen dauela gilleak.

2) Ignazio Larramendi jaun urgazlea il da. Bere etxekoai agertu bekie gure atsekabea.

3) Diño gaiñera, komeni litzakeala Irun-go *El Bidasoa* astekariaren zuzendariari eskerrak emotea astero astero zerbait argitaratuten dabelako euskeraz. Alan egin bedi.

Mitxelena jaunak diño Odon Apraiz jauna Lovaina/Bruselas-en izango dan izkuntzalarien batzarrera joango dala eta Euskaltzaindiaren izena eroan leiela bertara. Alan egin bedi.

Lekuona jaunak diño Ordizia-n Gipuzkoako bertsolari barrien txapelketa bat prestau dauela bertako "Laguntasuna" taldeak, eta berak juraduan parte artuko dauela.

Donostiako "Centro de Atracción y Turismo"-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Diño Iraillaren lenengo egunetan Ayuntamientoak daukazan arte-saletan egin gura dabela euskal-liburuak erakusketa bat "Exposición del libro vasco en los últimos 20 años" izenagaz. Eta Euskaltzaindiak argitaratu dituen liburuak eskatuten ditu, erakutsi ta gero barriro itzultzeko. Itxi bekiez liburuok.

"Espasa Calpe, S. A."-ren karta bat irakurri da. Azkenengo kontuak bialtzen dituez eta guretzat gelditzen dira 2.272,05 peseta.

Montevideo-tik José Pereiro Rodriguez jaunak *Revista Nacional*-en ale bat bialtzen dau *Euskera* gure aldizkariagaz aurrerantzean trukean egiteko eskaturik. Alan egin bedi.

Irigoyen jaunak diño aurtengo novela-sariaren epea amaitu dala eta eztala etorri ezer. Diño berba egin dauela Bizkaiko Ahorro-Kaxan —eskeiñita daukie saria— eta

onena deritxiela datorren urterako istea teatro-sariagaz batera egiteko. Orretarako karta bat idatzi bear jako Bizkaiko Ahorro-Kaxeari guztia aipatuz eta teatro-saria be imini daien eskatuz. Alan egin bedi.

Bilbon egingo dan bertsolarien asken-txapelketa nagusiaren gaiñean berba egin da. Baita Lesaka-n egingo dan Nafarroako azkenaren gaiñean be, Bizkaian Aguztuan txapelketa bi egin dira. Bata Zeanuri-n eta bestea Ondarrun.

Irun-en egin gura direan batzarren gaiñean berba egin da.

Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Diño Bilbon laguntzaille batzuk egutegi bat euskeraz gertetan dabiltzala. Baita argitaratu gura dituezala Juliana Azpeitia andrearen eta beraren ipuin-liburuak be. Baita diskotan imini gura dituezala euskalkanta batzuk be. T. B. O. baten gertakizunetan be ari direala. Eta kanta-liburutxo bat be egiña daukiela argitaratzeko gertu. Baimena eskatzen dau guzti ori egiteko. Lenengo aurrera eroan bediz aurreko batzarrean ontzat artu zirean oiñarriak eta orduan ikusiko da zelan argitaratu leitekezan gauza guzti orreik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

I. M.^a Etxaide

Zadorlari-ordea

L. Mitxelena